



TXILLARDEGI

lehengoan mozorroa galdua, oraingoan lotsa

Oraindik ere EBB-ko Lehendakaria den Arzallus-ek euskarari buruz esan zituen erokeriak denon gogoan zeudelarrik, bere burua gainditu nahiz-edo, beste hainbeste deklaratu du Nafarroa-ri dagokionez: «Podemos vivir perfectamente sin los navarros y sin su territorio». Bapo!

Ez, ordea, «podemos vivir»; Gobierno Vascongado delakoa, eta oraingo legetasuna osatzen duten instituzio guztiak, Nafarroa gabe **bizi baitira**. Euskara gabe bizi diren bezala.

Eta, nafartarrak mindu nahi izan balitu bezala, hau erantsi du: «Allí (Nafarroan, beraz) tienen un nivel de vida y una riqueza inferior a la nuestra; por lo tanto no es ninguna aportación esencial en el aspecto, diríamos, económico y potencial de la vida».

Eta ene galdera hau da: guztiz funtsezkoa al da baserri-tarren ekonomi laguntza? Ez dirudi. Hortaz: «Podemos vivir perfectamente sin los baserritarras y sin sus caseríos». Edota, «podemos vivir perfectamente sin los ancianos y sin sus recuerdos». Eta Arzallus eta Arzallus-tarrak gabe bizitzea proposatuko balitz? Zergatik jasan behar dugu Euskal Herriaren parte hau? «Podemos vivir perfectamente sin Arzallus y sus amigos políticos».

Nik, ekonomista ez izanik, nekez eman nezake iritzi sendorik horretaz. Baina mintza bekigu Bueno Asín nafartarra: «Constatamos que Navarra, desde el punto de vista económico (sin entrar en argumentos histórico-culturales, etc.) ya está integrada en el País Vasco. La economía navarra es un **elemento importante** de la estructura económica vasca. Intentar **separar**, desintegrar, Navarra de dicha estructura significa **atentar** contra los intereses de la **economía** del pueblo navarro y **vasco** en general».

Zer izan da, ordea, skal Herria, ekonomiari dagokionez, eta orain dela oso gutxi arte, **Nafarroa** eta inguruak baizik? Industria berria eraiki arte, eta ekonomiaren oinarria laborantza zenean, zer ziren Gipuzkoa eta Bi'kaia? Zer ziren demografiaren mailan?

Are okerragoa: Arzallus-ek ez du oraindik klase-baldintzapenez ezertxo ere konprenitu; eta Nafarroak, ekonomiaren arloan, ezagutu duen beherakadan nafartar **jauntxoek** nolako erantzunbeharra duten ez du ikusten. Eta honek ere, berriz, **eskuindar** itsu salatzen du. Nondik nora hitz egin daiteke horrela bere jauntxoen bitima den herri zapaldu batez? Nola, batez ere, Del Burgo eta gainerakoek jokabide nabarmenaren berri prentsa bidez egunero ematen zaigularrik?

Nafartar herria alienatua dago (eta dagoen heinean bakarrik, kontuz; zeren-eta Arzallus-tarrak ez dabilta oso sendo des-alienazio kontutan!); baina bertako jauntxoek eta Madriletikako morroiek alienatu dute. Hitz batez, Arzallusen lagunak arbasoek. Eta alienazio horren kakoaz jabetu den batek, ez du Arzallus-ek bezala hitz egiten.

Opari ederra Arzallus-ena eta PNV-rena! Arzallus-en «vascongadismoa» eta Del Burgo-ren «navarrismoa», txanpon berberaren bi aurpegiak baitira.

Arzallus-ek bota duen ideia, bestalde («vascongadoak», aberats; «nafartarrak», txiro), Nafarroa-ko herriak honela ulertuko du: abertzaletasuna, kapitalisten kontuak; nafartasuna, langileen eta pobreen arazoa. Hots, PNV-a, gero eta nabarmenkiago, UCD-aren delegazio «vascongadoa» izanik, Del Burgo eta Arzallus elkarren kide agertzen dira gaur Nafarroan. PNV-ak ez dauka Nafarroan UCD-aren laguntza beste biderik; eta gauza bera, piskanaka, beste probintzietan. PNV-a, horretara, erabat abiatu da euskal karlismoa abiatu zen bidetik; España-ko eskuindarrekin, Euskal Herriaren kontra.

Beste modu batera esateko: Nafarroan ezker aldetik eta anti-kapitalismoarekin batera sartuko da abertzaletasuna, ala akabo. Hau aspaldidanik ikusi zuen ezker abertzalearik; baina gero eta garbiago ageri da. Eta PNV-ren **kontra** sartuko da, ala ez da sartuko.

PNV-aren traizioa, beraz, osatua dago. Zeren-eta euskara gabe, Nafarroa gabe, Iparraldea gabe, eta herri zapalduaren kontra, egin nahi den «Euzkadi» hori, zer da?

Bestetan ere esana dut Nafarroa gabe, euskal projektua iragana gabe, oraina gabe eta geroa gabe geldituko litzatekeela. Euskal projektua, **Nafarroa piztutzea** besterik ez da. Arana-Goirik ez zuen hau ikusi; eta gerozko PNV-ak ere ez.

Eta argi eta garbi esaten dugu, beraz: «Nosotros, abertzales vascongados, no podemos ni queremos vivir sin los navarros ni sin su territorio». Areago: «La causa vasca, que ya era la «causa navarra» para la prensa europea durante el siglo pasado, es la **causa de Navarra**; o no es nada».

Halako batez idatzi nuenez: langileriaren kausa da sozialismoa; eta langileriatik at sozialismoa eraikitzerik ez dago. Eta era berean: Nafarroaren kausa da abertzaletasuna; eta Nafarroatik at abertzaletasuna eraikitzerik ez dago.

Eta sozialismoa eraikitzeke beste klase batzuk laguntza eman dezaket bezala, guk ere, «vascongadook», **laguntza** eman dezakegu; baina helburua **Nafarroa da**, zatiketarik eta lapurretarik baino lehenagoko Nafarroa, erdalkuntza eta txiroketa baino lehenagoko Nafarroa; Cisneros, Mola eta Del Burgo baino lehenagoko nafartar Nafarroa zaharra, berriturik.

«Normala» omen da hau guztia PNV-an. Eta, beraz, PNV-ren traiziorik ez dagoela diote batzuk.

Normala ez da, halere. PNV-an barruan dauden militante asko erabat **lotsatuta** daude. Baina lotsa horiek ez dute ezertarako balio; zernahi esanagatik ere, Arzallus, Vizcaya, Unzeta, Leizaola, eta antzekoak baitira jaun eta jabe PNV-an.

Zer gertatu ote den hor horrelako deskalabroak, eta horren azkar, gertatzeko? Ez dakigu.

Baina PNV-ak, benetan, mozorroa galdu ondoren, orain lotsa ere galdu du.■